



# Familiak, gaur egun

7 herrialdetako



Familiak



*LHko 4. maila*

**Fernando Cuadrado**  
2012ko urtarrilean berrikusia

## Lan-eskema

**Irakasgaia:** Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezaguera

**Gaia:** Familia-aniztasuna

**Maila:** Lehen Hezkuntzako 4. maila

**Saio kopurua:** 8 saio

### Proposamenaren testuingura:

Azken urteotan, gizartean, aldaketa ugari izan dira, eta horren adibide argia dugu familiaren kontzeptuan izan dena: familia mota berriak agertu dira. Legediak mota askotako familiak onartzen ditu, eta horiek non-nahi aurkitu daitezke. Batzuk soziologikoki gure ikasleengandik hurbil daude; beste batzuk, hurbil ez badaude ere, errespetuz eta tolerantziaz onartzen ikasi behar dute. Familiaren kontzeptu orokorra lantzeak errealitate berri horren ezagutza eta onarpena dakar.

“Ezberdina” baztertzeko joera aintzinakoa da gizartean, eta, gure ikasleen artean ere, hori arrunta izaten da. Gaur egun, familia mota berriak “ezberdintzat” hartuz gero, baztertu egin daitezke.

Familia nuklearrak aldaketa sakonak izan ditu, honako arrazoi hauek direla eta: jaiotza-tasa txikiak, migrazioekin lotutako kultura arteko fenomenoak, familiaren kontzeptua aldatu izana eta, ondorioz, dagokion legediaren gaurkotzea... Gure gaurko gizarteak, esate baterako, sendiaren kontzeptu ez sexistak eta kultura anitzak onartzen ditu.

Horren aurrean, gizartearen atzetik ez ibiltzeko, eskolak lan egin behar du gizartean txertatuta egon behar duelako eta errealitatearekin bat etorri behar duelako.

### Landuko diren oinarrizko gaitasunak ( jarduerak):

1. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna: 4., 5. eta 7. jarduerak
2. Ikasten ikasteko gaitasuna: 2., 3., 9., 12., 14., 15., 17. eta 20. jarduerak
3. Matematikarako gaitasuna: 3. eta 16. jarduerak
4. Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: 1., 3., 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12., 13., 14., 15., 17., 18., 19. eta 20. jarduerak
5. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna: 2., 6., 15. eta 16. jarduerak
6. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: 1., 3., 4., 5., 6., 7., 8., 9., 12., 13., 15., 16., 17., 18., 19. eta 20. jarduerak
7. Giza eta arte-kulturarako gaitasuna: 1., 2., 3., 8., 11., 13., 16. eta 17. jarduerak
8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: 4., 5., 6., 7. eta 17. jarduerak

### Helburu didaktikoak:

1. Familiaren kontzeptua gizarteko errealitate berriari egokitzea.
2. Gutxiengo egoeran dauden umeen aurrean, jokabide enpatikoak bultzatzea.
3. Familia barruko rola ezagutzea.
4. Giza talde batean, jarrera aktiboak bultzatzea.

**Edukiak:**

- Datuen bilketa ordenatua
- Familia motak (guraso bakarrekoak, guraso bikoak, guraso homosexualenak , guraso heterosexualenak, adopziokoak, biologikoak, harrerakoak, berreraikiak, transnazionalak)
- Familiaren eginkizunak eta rolak
- Zuhaitz genealogikoak

**Jardueren sekuentzia:**

## Planifikatzea

1. Familiak ez dira arraroak
2. Zuhaitz genealogikoa
3. Senitartekoen jatorria
4. Senitartekoen eginkizunak eta rolak
5. Nork egiten ditu gauzak etxean?
6. Etxeko lanak: gizonezkoen zeregina ala emakumezkoena?
7. Debatea

## Gauzatzea

- 8 -14. Familia motak ( 8. jardueratik 14. jarduerara)
15. Familiaren eginkizunak
16. Umeen eskubideak
- 17-20. Ebaluazioa

## Erabiltzea

17. Autobiografia: ondo zaintzen naute.
18. Familia bat asmatuko dut.

**Ebaluazioa:***Erakusleak:*

1. Ea familia mota desberdinak identifikatzen dituen.
2. Ea familia barruko rolak eta betebeharrak banatzen dituen irizpide sexistarik gabe.
3. Ea dakien adierazten familiaren eginkizunak.
4. Ea datuak ondo biltzen dituen eta datuen errepresentazio grafikoa zuzen egiten duen, ezarri zaizkion irizpideak kontuan hartuta.
5. Ea testu grafikoak irakurtzen dituen, informazio esanguratsua bereiziz.
6. Ea egoki adierazten dituen ideiak eta informazioak.

*Tresnak:***A) Jarduerak**

- Ebaluazio-jarduerak : 17-18-19-20

**B) Irakasleen behaketa**

- Ariketa idatziak
- Ikasleen jarrerak eta ekarpenak, bakarkakoak zein taldekoak


## 1. jarduera

### Familiak ez dira arraroak

Irakurri itzazue Mireni eta haren familiakoei buruzko testuak. Ondoren, marraztu itzazu Mirenen aita, ama eta neba, euren deskribapenak kontuan hartuta. Azkenean, Mirenen marrazkia eta deskribapena egin beharko duzue.



Kaixo, ni Miren naiz, bederatzi urte dauzkat, eta Bilbon jaio nintzen. Gaur nire familia aurkeztuko dizuet. Gure aita Moustafa da, Marokkon jaio zen, eta 40 urte dauzka. Gure ama Itziar da, Iruñean jaio zen orain dela 41 urte. Neba Antton da, zazpi urte dauzka eta Errusian jaio zen.

Pentsatuko duzue denok leku desberdinetan jaioak garela, eta hala da. Gutako bakoitza herrialde batean jaioa da.



Gure aitak ile kiskurra eta beltza dauka, azal ilunekoa da, ez da oso altua; ezta bajua ere. Begiak, marokiar askok bezala, beltzak ditu. Euskara Bilbon ikasi, eta bertan ezagutu zuen gure ama. Hasieran, bere lagun batzuekin bizi izan zen urte batzuetan, eta, gero, amarekin denboraldi bat ibili ondoren, elkarrekin bizitzera joan ziren.

Gure ama baxuagoa da aita baino. Begi urdinak ditu. Luze xamar eramaten du ilea, eta, aitak ez bezala, leun-leuna du, eta marroia. Gure amamaren antz handia dauka, biak dira oso argalak. Amak bulego batean lan egiten du, eta beti dago barrezka. Oso alaia da.



Antton ile hori-horia du, eta oso altua da. Errusian, jende asko horrelakoa izaten da. Harrituta gelditu nintzen, Errusian zein altuak diren ikusi nuenean. Bai, Errusian egonda gaude. Iaz, oportetan Moskura joan ginen Anttonek bera non jaio zen ikusteko. Zazpi hilabete zituela adoptatu zuten nire gurasoek. Amatxorenak bezalako begiak dauzka, urdinak, baina argiagoak. Zikin-zikin ibiltzen da lokatz artean jolasten delako askotan, ia beti.

Eta, ni? Nolakoa naiz? Ba, zeuk imajinatu nolakoa naizen, eta egin nire marrazkia eta deskribapena, nik nire familiakoekin egin dudana bezala.

Hau Miren da

**Mirenen deskribapena**

## 2. jarduera

### Zuhaitz genealogikoa


Dagoeneko, ezagutu ditugu Miren eta haren familiakoak. Orain, zeure familiaz arituko zara.

Aurkeztu ezazu zure familia:


Marraskia



Nire familiakoen deskribapena



Ondoren, gure arbasoekin "zuhaitz" bat osatuko dugu. Zuhaitz itxura duen honi "zuhaitz genealogikoa" esaten zaio. Idatzi laukiotan izena eta jaioterria.



Zure familia zuhaitzaren bidez aurkeztu ondoren, erantzun galdera hauek, guk informazio gehiago izateko:

- Non jaio ziren zure familiakoak? Orain, non bizi dira?
- Nolakoak dira fisikoki? Elkarren antzik badute? Esan nork noren antza duen, eta zertan (begietan, ilearen kolorean, izakeran...).

### 3. jarduera

#### Senitartekoen jatorria

Erantzun Mirenen familiari buruzko galdera hauek:

- Nongoa da ama?  
\_\_\_\_\_
- Jaio zen lekuan bizi da ama?  
\_\_\_\_\_
- Nongoa da aita?  
\_\_\_\_\_
- Jaio zen lekuan bizi da aita?  
\_\_\_\_\_
- Nongoa da Mirenen neba?  
\_\_\_\_\_
- Jaio zen lekuan bizi da Mirenen neba?  
\_\_\_\_\_

Non jaio dira zure gelakideak? Eta, euren senitartekoak? Egin ezazu galdeketa zure gelakideen artean, eta apunta itzazu eskatzen zaizkizun datuak beheko taulan. Familiaren batean senideren bat falta bada, egin ezazu marra bat dagokion gelaxkan. Lan hau binaka egiteko da. Beraz, jarri zaitetz ados gelakide batekin, eta jarraitu hurrengo urratsak:

- Egin ezazu gelakideen zerrenda, izenak alfabetikoki ordenatuta.
- Adostu zure bikotearekin bakoitzak nori egingo dion galdeketa. Beraz, gelakideak bi multzotan banandu behar dituzue.
- Datuak jasotzeko, apuntatu gelakideei egin behar dizkiezuen galderak. Adostu galderak bion artean.
- Kontuan hartu zenbat zareten gelan, taulan zenbat ilara egin behar duzuen jakiteko. Zuzenkiak erabili behar dituzue.
- Bete taula eredu honen arabera:

Gelakidearen izena	Senidetasuna	Senitartekoen izenak	Senitarteko kopurua	Jaiolekua	Hizkuntza



Taulan jasotako datuak kontuan hartuta, erantzun hurrengo galderak:

- 1- Guztiek dute senitarteko kopuru berbera? Zer alde dago haien artean?
- 2- Gelakideen familia guztietan daude era guztietako senitartekoak? Zer senitarteko falta zaie?

Emaitzak ikusita, jaso hemen atera zaizkizun familia motak, senidetasuna kontuan hartuta. Taula betetzeko, zutabe bakoitzean jarri X zure ikaskidearekin bizi den senitarteko bakoitzarengatik.

Adibidez, norbaiten etxean aitona bi bizi badira berarekin, X bi jarri beharko dituzu "Aitona" zutabeari dagokion gelaxkan. Zerrendan agertzen den senide bat berarekin bizi ez bada, gelaxka hutsik geratuko da.

Gelakid ea	Ama	Aita	Ahizpa / arreba	Neba / anaia	Amama	Aitona	Beste bat
Adibidea		x	x		x		

Taulan jasotako informazioa laburbilduko dugu.

Jarraitu ereduari: ipini kopurua puntutxoan gainean, eta gero adierazi zenbat eta zein senide mota dagoen familia mota bakoitzean.

- *(Adibidea) Atera zaizkigu ...4... familia honela osotuta: ama ..., aita ..., ahizpa..., neba ..., amama... eta aitona... (beste senide bat badago adieraz ezazu zer den eta kopurua)*

Orain zure txanda da:

- Atera zaizkigu ..... familia honela osotuta: : ama ..., aita ..., ahizpa..., neba ..., amama... eta aitona... .

4- Gelakide guztien senitarteko guztiak jaio dira Euskal Herrian?

- Nongoak dira hemen jaio ez direnak?

5- Etxe guztietan egiten da hizkuntza bera?

- Zein hizkuntza atera dira inkestan?

## 4. jarduera.

## Senitartekoen eginkizunak eta rolak

Familia baten, hainbat pertsona bizi dira. Familia barruan, bakoitzak lan bat egiten du. Zure familian zer lan egiten diren, eta lan horiek nork egiten dituen ikusiko dugu.

Kontatu atzo zer egin zenuen, altxatu zinenetik gauean ohean sartu zinen arte. Bete beheko taula, adibidean agertzen den moduan.

Noiz	Zer	Nork
08:30	Gosaldu nuen	Aitak / amak / nik / beste batek

Noiz	Zer	Nork

Autokontrola:

Goiko taula horretan hainbat jarduera agertu dira. Agian, denon zerrendetan ez dira jarduera berberak agertuko, eta, agian, hurrenkera desberdinean agertuko dira. Baina, seguru, honako jarduera hauek denok egin dituzuela. Konprobatu zuk ere idatzi dituzula, eta, baten bat falta bazaizu, apuntatu:

*Esnatu, garbitu, gosaldtu, motxila prestatu, jantzi, bazkaldtu, askaldtu, afaldtu, jolastu, lanak egin, pijama ipini eta ohean sartu.*

## 5 . jarduera

## Nork egiten ditu gauzak etxean?

Orain, beste gauza bat egingo duzue. Aurreko jardueran, zuek zer egin duzuen idatzi duzue. Baina, edozein familiatan, edozein etxetan, askoz ere jarduera gehiago egiten dira, eta, horietako batzuk, gehienak, etxeko beste batek egiten ditu. Idatzi nork egiten dituen zuenean:

Zer	Nork / Nortzuk
Arropa garbitu (garbigailua ipini)	
Arropa eskegi edo lehorgailuan sartu	
Arropa lisatu	
Arropa gorde	
Arropa erosi	
Arropa prestatu hurrengo egunerako	
Iratzargailua ipini	
Sukaldea batu (janari bakoitzaren ostean)	
Ohea egin	
Logela batu	
Komuna garbitu	
Etxeko beste gelak txukundu	
Garbigailua martxan ipini	
Sukaldeko lurra garbitu	
Janaria prestatu (gosaria, bazkaria, askaria, afaria)	
Mahaia ipini	
Mahaia batu	
Ogia erosi	
Erosketak egin (janaria, garbitzeko produktuak,...)	
Ekonomiaz arduratu (banketxera joan, dirua atera,...)	
Konponketak egin (bonbillak aldatu, gauzak eskegi,...)	
...	

## 7. jarduera.

### **Etxeko lanak: gizonezkoen zereginak ala emakumezkoenak?**

Ordenagailu gelara joango gara, istorio bat entzutera. Idatzi edo kopiatu barran honako helbide hau: <http://www.kontukontari.net/ipuinak/oso-familia-normala>

Gero, erantzun galdera hauek:

- Istorioan Sandra agertzen da. Zer dio?
- Zergatik gelditzen da harrিতuta?

## 7. jarduera

### Debatea: lanak nork?

Lau laguneko lantaldea osatuko duzue. Arestian, 5. jardueran, aipatu diren etxeko lan horiek nork egin behar dituen adostu behar duzue lantalde bakoitzean. Ondoren, laukote guztietako iritzia entzungo ditugu, eta, gero, eztabaida zabalduko dugu, gelan egin dituzuen lantalde guztietako iritzien gainean eztabaidatzeko.

Beraz, taldean pentsatu behar duzue nor izango den idazkaria (adostutakoa apuntatuko duena), eta nor bozeramailea (taldekoen iritzia gelako beste guztiei azalduko diena).

#### “Etxeko lanak”:

Zuen iritzia osatzeko, gai hauek har ditzakezue kontuan:


- Nork egin behar dituen eta zelan banandu behar diren
- Ba ote dauden gizonezkoen eta emakumezkoen lanak.
- Etxeko umeek lagundu dezaketen.
- Zein adinekin has daitezkeen umeak laguntzen.

Esaldiak hasteko, honako esamolde hauek erabili ditzakezue:

- Gure ustez....
- Guk uste dugu....
- Gure iritzia da...
- Pentsatzen dugu....

## 8. jarduera

### Familia ezberdinak, gurasoen sexua kontuan hartuta



Begi bistan duzun liburuaren azalean, hitz bat dago ezkutatuta. Hitz hori asmatzen saiatu behar duzu, izenburua osatzeko. Horretarako, begiratu arreta handiz ilustrazioari.

Aztertu liburuaren azala:

- Nor agertzen dira marrazkian?
- Zer egiten ari da Aitor?
- Pozik dago Aitor?

Nik uste dut liburuaren izenburua honako hau dela:

**Aitorrek bi ..... ditu.**

Laguntza:

- Falta den hitzak senidetasun mota bat adierazten du.
- Hiru hizki ditu

Seguru denok asmatu duzuela falta den hitza. Bai, hala da, Aitorrek ama bi ditu. Aitorren familia honela dago osatuta:

Gelakidea	Ama	Aita	Ahizpa / arreba	Neba / anaia	Amama	Aitita	Beste bat
Aitor	XX						

Liburu horretan azaltzen den istorioa kontatuko dizuet: Neska bik elkar ezagututa, batera bizitzea erabaki zuten. Handik gutxira, ume bat izatea pentsatu zuten. Ume hori Aitor da. Gelakideek adarra jotzen diote haren familia ezberdina delako.

- ❖ Bazenekien badirela halako familiak?
- ❖ Ezagutzen duzu ohikoa ez den familiarik? Baiezkoa bada, apuntatu azpialdean eta esan nolakoak diren, nork osatzen dituen.

Konparatu zuk ezagutzen dituzunak zerrenda honetan agertzen direnekin:

<b>Guraso bakarreko familia</b>	<b>Biologikoa</b>
	<b>Adopziokoa</b>
	<b>Harrerakoa</b>
<b>Guraso heterosexual biko familia</b>	<b>Biologikoa</b>
	<b>Adopziokoa</b>
	<b>Harrerakoa</b>
<b>Guraso homosexual biko familia</b>	<b>Biologikoa</b>
	<b>Adopziokoa</b>
	<b>Harrerakoa</b>
<b>Familia berreraikia</b>	<b>Biologikoa</b>
	<b>Adopziokoa</b>
	<b>Harrerakoa</b>

Beharbada, bertan azaltzen diren zenbait hitz ezezagunak izango dira zuretzat. Hementxe daukazu hitz horien esanahiak:

➤ **Guraso bakarrekoa:**

berdin dio aita edo ama izan, baina guraso bakarra dago.

➤ **Guraso bikoa:**

guraso bi dauden familia.

○ **Heterosexuala:**

Aitak, amak eta, gutxienez, seme-alaba batek osatzen dute familia mota hau.

○ **Homosexuala:**

Familia honetan bi ama, edo bi aita egon daitezke.

➤ **Berreraikia:**

Familia mota honetan, guraso batek (amak edo aitak) bikote berria dauka, eta aurreko bikotearekin izandako seme-alabak haiekin bizi daitezke. Familia hauek sortzen dira, aita edo ama hil bada, edo aita eta ama banandu badira.

**Biologikoa:**

Familia biologikoa da seme-alabak gurasoek sortutakoak direnean

**Adopziokoa:**

Kasu honetan seme-alabak adoptatu egin dira euren guraso biologikoekin bizi ez zirelako

**Harrerakoa:**

Sendi mota honetan familia batek aldi baterako hartzen du neska/mutil bat, umearen guraso biologikoek, epe batean, ezin dutelako bera zaindu.

Ziur ulertu duzula familia mota desberdinak daudela, eta denak familia normalak direla, familiaren eginkizuna betetzen baitute. Horixe ikasiko duzu hurrengo jardueren bidez: familien eginkizuna.



## 9. jarduera

### Ume adoptatuen familiak

Hementxe duzue bi ahizpa adoptatuk euren familiari buruz kontatu dutena. Irakurri arretaz.

Gu ez ginen hemen jaio, urrun-urrun jaio ginen. Hamar hilabete genituela, gurasoak etorri ziren gure bila. Hona etorri, eta orain beti gaude gurasoekin. Ikastetxean, umeren batek inoiz esan digu gu adoptatuak garela, baina guk badakigu hori. Aurten, familia osoa joango gara oporretan, gu jaio ginen herrira.

Gurasoek liburu bat oparitu digute: *Hitz egidazu berriro jaio nintzen gauaz*. Ipuin horretan, neska adoptatu batek gurasoei galdetzen die jaio zen lekuaz, eta batez ere bere bila joan ziren egunaz. Ipuinean kontatzen da ume adoptatuek bi ama dituztela: ama biologikoa eta adopziozko ama (“amatxo”, guretzat). Guk, baina, ez genuen ezagutu ama biologikoa. Guk amatxo eta aitatxo bakarrik ezagutzen ditugu.

Gurean, gurasoek kutxa batean dauzkate gordeta bila etorri zireneko oroigarriak: argazkiak, hegazkineko eta treneko txartelak, gure paperak, arropak... Kontatu digute hegazkinean negar pilo bat egin genuela, biberioa bakarrik, inork eman gabe, edaten bagenekielara, baina oso jatun txarrak ginela, ...

Orain, hemen dauzkagu izeko-osabak, lehengusu-lehengusinak, aitita-amamak, eta ama eta aita.

Aitatxok beti esaten digu gu hemengoak garela, baina hori badakigu guk.

Bikoteka jarrita, idatzi galdera hauen erantzunak, bikotekidearekin ados jarri eta gero.

- Ezagutzen duzu ume adoptaturen bat?
- Kontatu dizkizute zu jaio zineneko kontuak?
- Zergatik gorde zituzten oroigarriak ume horien gurasoek?
- Zergatik esaten die aitak hemengoak direla?
- Irakurketa horretan, ezerk harritu zaitu? Zerk? Zergatik?

## 10. jarduera

### Zein da nire familia?

Aurreko jardueran irakurri dugu gurasoek bikiei liburu bat oparitu dietela: **Hitz egidazu berriro jaio nintzen gauaz**. Hauxe duzue liburuaren azken esaldia:

“Aitatxo, amatxo, hitz egidazue berriro familian igaro genuen lehen gauaz”

- Zein da familian igarotzen den lehen gaua? Eta ume adoptatu baten kasuan?
- Zergatik esaten dugu: “Hau da nire familia”?

Idatzi, beheko lauki honetan, zure ustez familia zer den:

## 11. jarduera

### Familiak: guraso bananduak



Hona hemen familiei buruzko beste liburu bat: **“Etxe bitan bizi naiz. Eta zer?”**

Kontrazalean hau irakur dezakegu:

*“Etxe batean bizi al zara zu? Ongi. Ba, ni etxe bitan bizi naiz; gehienetan amarekin eta batzuetan aitarekin. Bietan daukat nire tokia, eta bietan asko maite naute.”*

Testutxo hori kontuan izanda, liburuak zertaz hitz egingo duen imajinatu. Nik emango dizkizut datu hauek hori imajinatzen laguntzeko:

- ❖ Protagonistak Sara du izena.
- ❖ Bere etxeetako bat hirian dago, bestea herri txiki batean.
- ❖ Gurasoek elkarrizketa bat izan dute berarekin.

Idatzi imajinatu duzun Sararen eta gurasoen arteko elkarrizketa. Kontuan izan liburuaren izenburuarekin zerikusia duela. Ez ahaztu elkarrizketan marra ipintzen dela norbaitek hitz egiten duenean.

## 12. jarduera

### Familia transnazonala

Jarraian, Txinatik gurera etorri berri den ikaskide baten idazkia erakutsiko dizuet. Haren historia nik kontatu baino, hobe irakurtzen baduzue. Oraindik ez daki euskaraz oso ondo; beraz, akats batzuk egin ditu.

Ni Txinaik etorri nintzen. Oso handia zen eta Sangai ondoan bizi naiz. Sangai ondoan nire amama, nite aitita, lehengusina eta arrebarekin bizi nazi. Aita eta Ama Gazteiz egon ziren. Ni Txinan oso pozik egon nintzen. Lagunekin jolasten nuen. Gure eskola oso handia da eta ume asko daude eta zazpi urte egon nintzen amama eta aititarekin. 2 edo 3 urte aitatxo eta amatxo ez nuen ikusi. Ama eta aita Gasteizen lan egiten dabil. Geroago ni Txinatin Gazteizera etorri nintzen. Gazteizen urte bat egon nintzen. oso pozik nengoen aita eta amarekin. Denda baten egiten lan. Gero herri honetara etorri nintzen. Hemen apur bat ondo baina Txinara bueltatu nahi dut. Hemen ez daukat lagunari. Etorri nintzenean baina orain bai apur bat gustatzen zait herri hau.

Mutikoak zortzi urte ditu. Idazkian kontatu digu gurasoak hemen bizi zirela eta bera Txinan. Horri **familia transnazonala** esaten zaio, hau da, familia osoa batera bizi beharrean, herri edo estatu desberdinetan bizi izateari.

Gure laguna orain dela urte bat eta erdi etorri zen Euskal Herrira, eta, ikusten duzuen bezala, euskara asko ikasi du, baina oraindik akatsak egiten ditu. Berridatzi testua azpiko koadroan, akatsak zuzendu ondoren.

### 13. jarduera

#### Etnia anitzeko familiak



Hona hemen beste familia bat. Deskribatu familia hori nolakoa den: zenbat diren, guraso bakarrekoak edo guraso bikoak diren, nongoak izateko itxura duten, zenbat urte duten... Arreta ematen dizun edozer aipatu ahal duzu beheko koadroan:

A large empty rectangular area with an orange border, intended for writing the answer to the question above.

Argazkiaren deskribapena egin ondoren, erantzun galdera hauei:

- a- Guztiak dira kolore berekoak?
- b- Zenbat urte dute umeek, zure ustez?
- c- Zergatik dira hain desberdinak familiako kideak?
- d- Nolako jarrera erakusten dute gurasoek argazkian?

Jarraian, familia horren gorabeherak irakurri ahal izango dituzue

Gurasoak aktoreak dira, eta, ikusten den bezala, seme-alaba biologikoak eta adoptatuak dauzkate. Guztien gurasoak dira, eta guztien artean osatzen dute familia bat.

## 14. jarduera

### Etorkinen familiak

Orain dela gutxi herri askotako jendea Euskal Herrira etortzen hasi da. Denak etorri dira gure artera, bizimodu hobea nahi zutelako eta euren jatorriko herrietan bizimodua atera ezin zutelako.

Kontuak kontu, orain agerian dago guk ezagutzen ez ditugun hizkuntzak entzuten ditugula gure lagunak eta haien gurasoen artean. Orain kolore guztietako lagunak dauzkagu, jatorri askotakoak eta urrunekoak.

Jarraian, beste ume etorkin baten kontaketa irakurtzeko aukera izango duzu. Irakurri arreta handiz!

**Ni Boliviatik etorri nintzen. Gurasoak uzta biltzera joaten zirenean joaten nintzen ni eskolara. Goizeko zortzietan sartzen nintzen. Gustuko nuen han bizitzea. Gero, beste herri batera joan ginen bizitzera, aitaren anaiak bertan bizi zirelako. Aitak arroz lantegi batean egiten zuen lan. Nire lehenengo herria gehiago gustatzen zitzaidan bigarrena baino, ikastetxea hurbilago zegoelako eta lagun asko nituelako. Gero, gure gurasoak Madrilera etorri ziren, eta ni eta nire arreba Bolivian gelditu ginen gure aitona-amonekin. Bost urtez egon nintzen gurasoak ikusi gabe, eta nik haien falta sentitzen nuen. Gero, gure gurasoak Bilbora etorri ziren, eta aita gure bila joan zen Boliviara. Batetik, etorri nahi nuen gurasoekin egoteko; baina, bestetik, ez nuen etorri nahi, aitona-amonak bakarrik gelditzen zirelako, eta horrek pena handia ematen zidan. Orain hemen gustura nago, lagun asko dudalako eta nire aitona-amonekin igandero telefonoz hitz egiten dudalako.**

Umeak bere bizipenak kontatu dizkigu. Orain, bizipen horien inguruko gogoetak egingo ditugu:

- Nolakoa zen bere familia Bolivian? Zenbat ziren familian? Zer familia mota osatzen zuten? Eta nolakoa osatzen dute gaur egun?
- Zein dira umeak aipatzen dituen penak? Zuk ere pena sentituko zenuen egoera horietan egon bazina?
- Zerk ematen dio poztasuna orain?

- ❖ Ezagutzen duzu kanpotik etorri den umerik? Egiten duzu ezer pena sentitu ez dezaten? Zer?
- ❖ Adibidez, Boliviara bizitzera joango bazina, zer eskatuko zenieke hango neska-mutilei?


## 15. jarduera

### Gurasoen ardurak

Familiaren betekizuna umeak haztea da, baina ez edozelan, gurasoek zenbait eginkizun baitauzkate beren seme-alabekiko. Hona hemen eginkizunok:

- Umeak hezi, eta hezkuntza eman.
- Seme-alabak gizarteratu (inguruko taldeetan txertatu, gizakiok taldean bizitzekoak baikara).
- Ondo zaindu, jaten eman, jantzi...
- Maitasunez hazi.

Eztabaidatu esandako puntuak zure lantaldean. Gero, idatzi bakoitzak zer esan nahi duen, eta adibideak ipini. Horretarako, eskema honek balioko dizue.



Egin horren antzeko zerbait ordenagailuan (orria horizontalean ipinita, espazio gehiago izango duzue).

Lau eginkizun horiek definitu eta gero, galdera hauei erantzun, erantzunok lantaldean adostu ondoren.



Eginkizun horiek guztiak betetzeko,

- ✚ garrantzirik al du gizonezko edo emakumezko izateak?
- ✚ derrigorrezkoa al da guraso biologikoa izatea?
- ✚ aita edo ama bakar batek egin ahal du hori guzti hori?
- ✚ bikote homosexual batek egin dezake era berdinean?
- ✚ harrera-familia batek bete ditzake eginkizun horiek denboraldi batean?
- ✚ amarekin edo aitarekin bizi den bikotekideak egin dezake?

Ondoren, zentzugabeko testua aurkituko duzu. Txukundu, eta esan zer nahi duen:

*Gurasoek dute arduratu behar seme-alabei arlotan bere buruz hainbat: dituzte ondo behar umeak jabe egin zaindu, dagokion gizarteratu, hezkuntza eman, taldean kulturaren, eta.*

Testu zuzena

Testuaren esanahia

**16. jarduera****Umeok ere eskubideak ditugu**

Azpian dituzu umeen zenbait eskubide. Lau aukeratu ditut, ezagutu eta landu ditzazuen. Irakurri arreta handiz; gero, zenbait galdera egingo dizkizuet, eta zuek erantzun zuzenak markatuko dituzue.

Umeen eskubideak:

- Izena eta nazionalitatea izateko eskubidea.
- Osasuna, elikadura, etxebizitza eta aisialdia izateko eskubidea.
- Elbarritasun (arazo) fisiko, sozial (taldean bizitzeko) edo mentala (buruko arazoa) daukaten umeek hezkuntza eta zainketa bereziak izateko eskubidea daukate.
- Gurasoen babesean eta erantzukizunean edo maitasuneko eta segurtasun moral eta materialeko giroan hazteko eskubidea. Gizarteak eta agintari publikoen betebeharra (lehendakariena, politikoena,...) izango da bereziki familiarik edo bizirauteko baliabiderik ez daukaten haurrak zaintzea.

Aukeratu erantzun egokia.

1. Zergatik da umearen eskubide bat nazionalitate bat izatea?

- a- Hizkuntza bat ikasiko duelako .....
- b- Politikoez beraz arduratu beharko dutelako .....
- c- Ez duelako gerra batean parte hartuko .....
- d- Beti ondo orraztuta joango delako .....

2. Aisialdia eskubide bat da honako arrazoi honengatik:

- a- Futboleaz ikasiko duelako .....
- b- Bideo-kontsola bat izateko eskubidea daukalako .....
- c- Bere denbora librean lan egin ahal izango duelako eta etxekoei lagundu dirua irabazten .....
- d- Ondo orrazteko denbora behar duelako.....


3. Umeak izan ditzakeen arazoak kontuan hartuko dira, eta arazo horiek aintzat hartuko dira umea zaintzeko, arrazoi honengatik:

- a- Indartsu haziko delako eta baloia gogor astinduko duelako.....
- b- Edozelakoak izanda ere, denok eskubide berberak ditugulako.....
- c- Bere familia pobrea delako.....
- d- Bizitzan denok gogorrak egin behar garelako.....

4. Familiak ezin badu, gizarteak zaindu behar dituela esaten dute eskubide horiek, hauxe lortzeko:

- a- Gobernuek duten dirua gastatu behar dutelako.....
- b- Udaletxeak txokolatea emango dielako.....
- c- Ez direlako animaliak.....
- d- Ez daukatenekin solidarioak izatea gizakien ezaugarria delako.....

Irudikatu gela osoaren emaitzak taula honetan. Horretarako, kontuan hartuko da zenbat ikaslek eman duten antzeko erantzuna, eta antzeko erantzunen kopuruaren arabera, jarri behar duzu marra lau koloreetako batean.



**17. jarduera****Autobiografia: zainduta bizi naiz**

Orain zure biografia osatuko duzu. Horretarako, aitarekin, amarekin, aitona-amonekin... hitz egin behar duzu, orain arte nola bizi izan zaren ondo jakiteko. Umeak garen bitartean, familiakoen laguntza eta babesak behar izaten dugu neurri handi batean; beraz, ez ahaztu sendia ere agertu behar dela zure biografian.

- Argazkiak ekar ditzakezu, eta orrietan itsatsi ilustrazio gisa.
- Hona hemen zenbait puntu biografia osatzeko:
  - Non, noiz jaio zinen? (ospitalean, etxean, eguna, ordua, eguraldia...)
  - Nolakoa zinen? (pisua, altuera...)
  - Negar asko egiten zenuen? Noiz?
  - Zer jaten edo edaten zenuen hasieran? Noiz hasi zinen hartzen esnea ez beste jaki batzuk? Zer gustatzen zitzaizun gehien?
  - Txupeterik erabiltzen zenuen? Noiz arte?
  - Nola egiten zenuen lo? (erraz, asko kostata...)
  - Noiz irten zitzaizun lehen hortza? Eta noiz jausi zitzaizun lehenengoa? Norbaitek atera zizun? Nork? Nola? Zer egin zenuen hortz horrekin?
  - Noiz hasi zinen eskolan?
  - Nolakoak izan ziren zure lehen eskola-egunak?
  - Noiz hasi zinen hitz egiten? Zein ziren zure lehenengo berbak?
  - Norekin jolasten zinen txikitan?
  - Nor izan zen zure lehen andereñoa edo maisua?
  - Noiz ikasi zenuen irakurtzen? Eta idazten?

Informazio horretaz gain, kontatu dizkizuten beste kontu aipagarri batzuk ere erabili ahal dituzu.

Biografia amaitzeko, kontatu zure familiak zer lan egin duen zu zainduta eta babestuta egoteko. Bukatzen duzunean, ez ahaztu ortografia birpasatzea.

## 18. jarduera

### Familia bat asmatzen

Asmatu bi familia desberdin proposatzen dizkizugun sei pertsona hauekin, eta antolatu bakoitzari dagokion zuhaitz genealogikoa:

<i>Belinda:</i>	<i>38 urte dauzka, Ekuatorean jaioa</i>
<i>June eta Mary:</i>	<i>4 urtekoak eta zuriak</i>
<i>Ibrahim:</i>	<i>10 urtekoa eta beltza, Etiopian jaioa</i>
<i>Roberto:</i>	<i>37 urtekoa, Euskal Herrian jaioa</i>
<i>Jon:</i>	<i>40 urtekoa, Euskal Herrian jaioa</i>
<i>Jose:</i>	<i>82 urte dauzka, Ekuatorean jaio zen</i>

Gero, asmatu duzun familia bakoitza sailkatu behar duzu 8. jardueran ikusi genuen sailkapenaren arabera.

## 19. jarduera

### Gurutzegrama

Sartu hitz hauek gurutzegrama honetan:

monoparentala  
nuklearra  
biparental  
homosexuala  
berreraikia  
homosexuala  
berreraikia

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----

a																			
b																			
c																			
d																			
e																			
f																			
g																			
h																			
i																			
j																			
k																			
l																			

## 20. jarduera

### Definizioak egiten

Lotu familia mota bakoitza dagokion esaldiarekin, eta definitu (esan familia mota bakoitza zer den).

Familia monoparentala	Nire aitek platerak garbitzeko txandak egiten dituzte.
Familia nuklearra	Ama, aita eta ni itxaroten ari gara nire arreba noiz jaioko.
Familia biparental homosexuala	Aita beste herri batean bizi da, eta oporrak berarekin igaroko ditut.
Familia berreraikia	Nire arrebaren aita lanean dago, eta gero etorriko da bazkaltzera.

Definizioak egiteko, 8. jarduerako testua irakur dezakezu berriro.

Familia monoparentala:

Familia nuklearra:

Familia biparental homosexuala:

Familia berreraikia: